

UDALERRIKO EKONOMI JARDUEREN GAINEN ZERGA ORDAINARAZTEKO ZENBAIT AHALMEN ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Udal honek Ordenantza Fiskal honetako koefizienteak eta indizeak finkatu ditu; horretarako, Ekonomi Jardueren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 13/1989 Foru Arauaren 10. eta 11. artikuluetan aurreikusitako ahalmenak darabiltza (ikus nola gelditu den aipatutako azken artikulua horren idazketa berria Premiasko Zerga Neurriei buruzko apirilaren 5eko 7/1991 Foru Arauan).

II. GUTXIENEN KUOTEN PONDERAZIOA

2. artikulua

Udalerrri honetan zergapetutako jardueretarako, Gipuzkoako Foru Aldundiak zerga honen tarifetan ezarritako gutxieneko kuotak hartu eta 1. ERANSKINEAN azaltzen den koefizientearen arabera gehituko dira.

3. artikulua

Udalerrrian zerga honek zergapetutako jarduerak gauzatzen diren lokalen kokapena ponderatzeko, aurreko 2. artikulua arabera gehituko kuotei 2. Eranskinean adierazitako indizeak aplikatuko zaizkie, bide publikoak duen kategoria kontuan hartuz.

4. artikulua

Gehikuntza-koefizientea eta kokapen-indizea -ordenantza honetako 2. eta 3. artikuluetan finkatu direnak hurrenez-hurren- ez zaizkie aplikatuko ez kuota probintzialei, ez kuota bereziei, ezta Foru Errekarguari ere.

5. artikulua

Aurreko 3. artikuluan aipatutako indizeak aplikatu ahal izateko, udalerriko kale, plaza edo auzoak sailkatu egin dira 2. Eranskinean zerrendatutako kategorien arabera.

III. TRIBUTUZKO KUOTA

6. artikulua

Zerga honen tributu-kuota zehazteko, tarifek finkatutako gutxieneko kuotak hartu eta gehitu egin beharko zaizkie Ordenantza honetako 2. eta 3. artikuluen eta, kasua balitz, Foru Errekarguaren arabera dagozkien indizea eta koefizientea.

IV. GESTIO ARAUAK

7. artikulua

1. Zerga hau kudeatu, kitatu, bildu eta ikuskatzeko gaitasunak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utzi ahal izango dira, betiere Udalbatza Osoak erabakitako terminoetan, edukian eta eremuan, eta horretarako dagokion hitzarmena izenpetu beharko da.

2. Erabaki eta hitzarmen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira sinatu ondorengo lehen seihilekoaren barruan. Halaber, aldizkari ofizial horren bidez ere argitaratuko da hitzarmen horien salaketa.

3. Artikulu honetako 1. zenbakian xedatutakoa horrela bada ere, kuota probintzialesi eta bereziei dagokienean Foru Aldundiak izango ditu han adierazitako ahalmenak.

V. AZKEN XEDAPENA

Transkribatutako Ordenantza Fiskala eta horren 1. eta 2. Eranskinetako koefizienteak, indizeak eta bide publikoen kategoriak Udalbatza Osoak onartu zituen Eranskinen jasotako egunean. Indarrean 2012ko urtarrilaren 1ean sartuko dira, eta aldatzea edo derogatzea erabakitzen ez diren bitartean aplikatuko dira.

1. ERANSKINA

Batzarraren data: 2011ko abenduak 19

Finkatutako gutxienerako kuoten gehikuntza koefiziente bakarra: 2,0726

Halaber, zerga hau onartzen duen 1993ko apirilaren 20ko 1/1993 Foru Dekretu Arauemailearen 11.artikuluan xedatutakoari jarraituz, eragiketa bolumenaren arabera ponderazio-koefizientea ezarriko da.

2. ERANSKINA

Udalerriko bide publikoen sailkapena:

Kategoria: Bakarra

Indizea: 1

3. ERANSKINA

13/1996 Foru Arauaren arabera Foru Aldundiak egitasmo estrategiko bezala izendatutako proiektuek %95eko hobaria izango dute.

ALKATEA
KONTUHARTZAILEA

IDAZKARIA